

**BILBAO EKINTZA, EPELEN ETA ELHUYAR FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA, "ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2026" IZENEKO EKITALDIAREN
ESPARRUAN**

Erref.: 260407/Col.

AGERTU DIRA

Alde batetik, F. JAVIER GARCINUÑO ZABALA jauna, BILBAO EKINTZA EPELeke zuzendari nagusia den aldetik (IFZ: Q-4800731-D eta helbidea: Nafarroa 5, 48001 Bilbo), behar den moduan izendatua, entitatearen Administrazio Kontseiluak 2019ko abuztuaren 21ean egindako izendapenarekin bat etorritik eta Bilbao Ekintza EPELen Estatutuen 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik (Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 2011ko uztailaren 5eko 127. zenbakia).

Beste alde batetik, ITZIAR CORTÉS ETXABE andrea, adinez nagusia, ELHUYAR FUNDAZIOAren izenean eta ordezkartzan (IFZ: G20780896 eta helbidea: Zelai Haundi 3 - 20170 Usurbil).

ADIERAZI DUTE:

I.- BILBAO EKINTZA EPEL sozietatea (aurrerantzean, "BILBAO EKINTZA") Bilborentzako aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea bultzatzen duen udal-entitatea da; hiria sustatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa, eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzeko.

II.- ELHUYAR FUNDAZIOAK (aurrerantzean, "ERAKUNDE ONURADUNA") "ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2026" izeneko ekintza aurkeztu dio BILBAO EKINTZAri. Azoka hori 12-18 urteko gazteen artean bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatu nahi dituen ekintza da, eta ERAKUNDEAK bultzatu eta antolatu du.

III.- Gero eta agerikoagoa da langile kualifikaturik ez dagoelako betetzeko zailak diren lanpostu zientifiko eta teknologikoen beharra. Horregatik jarri da abian "Zientzia Azoka" proiektua, Euskal Herriko zein Euskal Herritik kanpoko ikastetxe eta gazteek parte hartzen duten irismen handiko proiektua.

Ekimena ikasturtean zehar garatzen da eta 12-18 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute. Ekimenean zehar, proiektu zientifiko edo teknologiko bat egiten dute, Euskal Herriko unibertsitateetako eta ikerketa-zentroetako mentore eta profesional ikertzaileen laguntzarekin, eta ekimenari amaiera emateko azoka bat egiten dute, gazteek beren lanak edo erronkak ezagutarazteko.

Proiektuen azken erakusketa jende asko biltzen den eremu batean egiten da, eta hala, kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzakoa herritarrengana iristen da zuzenean gazte-taldeen eskutik, euskal zientzia- eta teknologia-sare osoaren eta administrazioen laguntzarekin. Aurten, maiatzaren 6tik 9ra egingo da azoka, Areatzako kaian.

IV.- Azken batean, BILBAO EKINTZAren interesekin oso lotuta dagoen proiektua da; izan ere, proiektuaren helburuetako bat tokiko talentua sortzen eta garatzen laguntzea da, eta, beraz, Bilboko hiriaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

V.- Jasotako kontsiderazioetan oinarrituta, Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko abenduaren 29an egindako bilkuran, BILBAO EKINTZA erakunde publikoak ELHUYAR FUNDAZIOARI (IFZ: G20780896) HOGEITA ZAZPI MILA EUROKO (27.000,00 €) dirulaguntza izenduna ematea erabaki zuen.

Horregatik guztiagatik, eta orain arte azaldutakotik eratorritako eskubide eta betebeharren esparrua arautzeko, bi alderdiek, esku hartzen duten kontzeptuan elkarri eskumen eta gaitasun juridiko nahikoa aitortuta, hitzarmen hau sinatu dute, eta honako klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Helburua

Dirulaguntzaren helburua da bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzea xede duen "ZIENTZIA AZOKA 2026" jarduera babestea, bai eta "ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2026" izeneko ekitaldian egiten diren proiektuen azken aurkezpena egitea ere. Azoka Bilbon egingo da, 2026ko maiatzaren 6tik 9ra bitartean.

BIGARRENA.- Lankidetzaren garapena

ENTITATE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du ekintzak jarduketa-proposamenaren eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera antolatzeko. Era berean, BILBAO EKINTZAK eskatzen dizkion ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, sustapen-ekitaldiak, ekitaldi sozialak edo komunikabideetakoak izan.

Bestalde, BILBAO EKINTZAK HOGEITA ZAZPI MILA EUROKO (27.000,00 €) zenbateko globala emango dio ENTITATE ONURADUNARI dirulaguntza gisa, ekitaldia egin dezan.

HIRUGARRENA.- Indarraldia

Lankidetz hitzarmen honen iraupena hitzarmena sinatzen den egunetik dirulaguntzaren xede den ekintza gauzatzen den egunera artekoa izango da. Hala ere, hitzarmena iraungitzen denean ere, beren izaeragatik hitzarmenaren amaieraren ondoren bete beharrekoak diren klausulek indarrean jarraituko dute, ezinbestean.

LAUGARRENA.- Ordainketak egiteko modua

BILBAO EKINTZAK, lortutako hitzarmenen arabera, konpromisoa hartzen du ERAKUNDE ONURADUNARI hitzarmen honen bigarren klausulan adierazitako zenbatekoa emateko, honako epe eta baldintza hauetan:

- HOGEITA BAT MILA ETA SEIEHUN EURO (21.600,00 €) gehienez hilabeteko epean ordainduko dira, hitzarmen hau sinatzen denetik kontaktzen hasita.
- BOST MILA ETA LAUREHUN EURO (5.400,00 €) ekitaldia amaitutakoan ordainduko dira, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:
 - o Jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita (jardueren ezagutza bisuala izatea ahalbidetzen duen dokumentazio grafikoa erantsita).
 - o Hitzarmen honetan jasotako eta diruz lagun daitezkeen kostuak justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituenak:
 - Egindako jardueren diru-sarreraren zerrenda.
 - Egindako jardueren gastuen zerrenda, hartzekoduna identifikatuta.
 - Eskatutako aurrekontuak (3), dirulaguntzari egotzitako gasturen bat Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako muga (15.000 €) baino handiagoa bada.
 - Jatorrizko fakturak edo dirulaguntzaren zenbatekoari egotzitako kopia konpultsatuak. Halaber, ordainketaren egiaztatgiriak aurkeztu beharko dira. Faktura horiek ezin izango dira aurkeztu beste erakunde batzuetan dirulaguntzak justifikatzeko, egotzi gabeko ehunekoagatik izan ezik.

ERAKUNDE ONURADUNAK, hala ere, une hori baino lehen eskatu ahal izango du emandako dirulaguntza osoaren ordainketa, horretarako dagokion eskabidea idatziz

aurkeztuta. BILBAO EKINTZAK, antzemandako beharren arabera, aitortutako dirulaguntza emango du. Edonola ere, horrek ez du eragotziko aurretik adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar izatea.

Justifikatutako guztizko zenbatekoa ez bada iristen hitzarmen honen bigarren atalean jasotako eta emandako guztizko kopurura, BILBAO EKINTZAREN azken ekarpena murriztu egingo da zenbateko horiei dagokienez, eta ERAKUNDE ONURADUNAK jasotako diru kopurua ere itzuli beharko du, justifikatu ez bada.

ERAKUNDE ONURADUNAK bermatzen du ez dela gainfinantzaketarik izango hitzarmen honetan jasotako diruz laguntzeko moduko kostuei dagokienez. Horrelakorik gertatuz gero, ERAKUNDE ONURADUNAK alde hori gairatzen duen ehunekoa itzuli beharko dio BILBAO EKINTZARI.

BOSGARRENA.- Erantzukizunen araubidea

BILBAO EKINTZAK ez du bere gain hartuko, inola ere, ekintzen garapenetik erator daitekeen edozein kalteren erantzukizunik, ez eta inolako kontzepturik ere.

ERAKUNDE ONURADUNAK bere gain hartzen du hitzartutako jardueren ondoriozko erantzukizuna, eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko ditu, eska dakizkikeen beste batzuk alde batera utzi gabe, eta berak ordaindu beharko ditu.

SEIGARRENA.- Publizitatea

ERAKUNDE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du BILBAO EKINTZAK laguntzaile gisa ematen dizkion logotipoak sartzeko, bere jardueren publizitate osoan lehenetsutako lekuan, bai eta hedapen-materialetan, seinale-materialetan eta abarretan ere.

BILBAO EKINTZAK ERAKUNDE ONURADUNAK emandako memorian jasotako dokumentazioa (edozein euskarritan ematen diren irudiak barne) erabili ahal izango du bere sustapen-produktuak egiteko eta interesgarritzat jotzen dituen hedabideetan hedatzeko

(memoriak, ikus-entzunezko proiektzioak hainbat gunetan, hala nola Bilboko Turismo Bulegoan, etab.).

Ildo horretan, ERAKUNDE ONURADUNAK BILBAO EKINTZARI xede horretarako entregatzen dizkioten euskarri eta dokumentuetan ageri diren pertsonen beharrezko baimenak izan beharko ditu, eta hirugarrenek BILBAO EKINTZAREN aurka aurkeztutako erreklamazio edo erreklamazio-mehatxu oro defendatu beharko du, baldin eta erreklamazio horiren oinarria baldin bada emandako edukiek datu pertsonalen babesa urratzen dutela edo, hala badagokio, hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzen dituztela.

ENTITATE ONURADUNAK erantzukizun orotatik salbuesten du BILBAO EKINTZA, aurreko bermeak ez betetzeagatik sor litezkeen erreklamazio, kalte edo karguen aurrean.

Era berean, BILBAO EKINTZAK konpromisoa hartzen du bere esperientzia, bitartekoak eta dokumentazioa emateko, lankidetzaz sustatzeko eta ahaleginak bateratzeko ERAKUNDE ONURADUNAREKIN, hiriaren sustapenerako, adierazpen guztietan eta Bilboren etorkizuneko proiektzioan.

ZAZPIGARRENA.- ONURADUNAREN betebeharrak

ERAKUNDE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak betetzeko, eta aitortzen du ezagutzen eta onartzen duela. Era berean, konpromisoa hartzen du irudi profesional ona izateko eta BILBAO EKINTZAREN irudiari kalte egiten dion edozein jarrera edo jokabide saihesteko. Horrez gain, BILBAO EKINTZAK eskatzen dionean, garatu beharreko jarduerari, egindako sustapen-ekintzei eta horien ondorioei buruzko edozein informazio emango du.

ERAKUNDE ONURADUNAK lankidetzaz hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, BILBAO EKINTZAK ahalmena izango du hitzarmena suntsiarazteko eta ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Arau-haustek eta zehapenak

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan jasotako arau-haustek eta zehapenak ere aplikagarri izango dira lankidetzahitzarmen honetan jasotako zerrendan.

BEDERATZIGARRENA.- Araudia

Lankidetzahitzarmen honetan jasotzen ez diren alderdietarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

HAMARGARRENA.- Jurisdikzio eskuduna

Alderdiek, legokiekeen beste edozein foruri berriaz uko eginez, Bilboko epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen desadostasunak argitzeko.

Horrela jasota gera dadin, berretsi eta ondorio bakarrerako sinatu dute, Bilbon, sinadura elektronikoaren datan.

BILBAO EKINTZA, EPEL**ELHUYAR FUNDAZIOA****Sin.: F. Javier Garcinuño Zabala****Sin.: Itziar Cortés Etxabe**